

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LANTARONGO UDALA

#### Behin betiko onarpena. Egikaritze-unitateen mugaketa

Alkatetzaren 2026ko apirilaren 14ko ebazpenaren bidez, behin betiko onartu da Molinilla herriko UE-1 egikaritze-unitatearen eremuen aldaketa, Angel Fernández de Labastida Aguayo jaunak sustatua. Angel Fernández de Labastida Aguayo da aldaketak eragindako lurzati guztien katastro-titularra, eta Joan Palmés Mordillo arkitektoak idatzi du.

Guztiek jakin dezaten eta ondorioak izan ditzan ematen da argitara hau. Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du eta bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako dagokion epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Hala ere, bidezko iritzitako beste edozein errekurtso ere aurkez daiteke.

Hala ere, aukeran, eta aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Comunión, 2026ko apirilaren 14a

*Alkatea*

*JOSE LUIS SALVIDEA MARTINEZ*